

## **AURKEZPENA**

**Ecotupper**-ren helburu den publikoaren deskribapena honako hau izango litzateke:

Lehenik eta behin, **gazteak eta helduak, (25 eta 40 urte bitartekoak)**. Talde hau bulegoetako langileek edo egunerokoan denbora gutxi duten pertsonak osatzen dute, eta bilatzen dute soluzio praktikoak elikagaiak berotzeko, laneko mikroondaketan mendekotasunik gabe, haien bizimodu antolatu eta praktikoa izateko.

**Unibertsitateko edo lanbide-heziketako ikasleak, (18 eta 25 urte bitartekoak)**, eta normalean etxetik ekarritako janaria kontuan hartuta dirua aurreztu edo dieta orekatua mantentzeko erabiltzen dute. Etxetik urrun bizi direnez, teknologia moderno, irisgarri eta garraiatzeko erraza duten dispositiboak bilatzen dituzte.

**Kanpoko jarduerak egiten** duten pertsonak, **(30 eta 50 urte bitartekoak)**. Hauek kanping-a, mendiko irteerak edo kanpoan lan egitea gustuko dutenak dira, eta talde honentzat, batez ere eguzki panelarekin dagoen bertsioa erabilgarria izango litzateke. Horiek janaria berotu ahal izango lukete energia elektrikoaren mende egon gabe.

**Gurasoak haur txikiekin, (30 eta 45 urte bitartekoak)**, beste publiko garrantzitsu bat dira, eta haien haurren janaria berotzeko soluzio bat bilatu behar dute, garrantzitsua delako haur txikiek elikadura ona izatea. Produktu segurua, fidagarria eta erabiltzeko erraza bilatzen dute, eta, horrela, kafetegietan edo mikroondean partekatu beharrik gabe, euren beharrei erantzuteko aukera izango lukete.

**Ingurumena zaintzen duten erabiltzaileak, (20 eta 45 urte bitartekoak)**, beste talde garrantzitsu bat dira. Produktu berrerabilgarriak, jasangarriak eta teknologia ekologikoak bilatzen dituzte, eta eguzki-panelarekin dagoen bertsioa bereziki erakargarria izango litzateke. Material iraunkorrak eta ingurumenarekin bateragarriak diren produktuak ere estimatuko lituzkete.

Azkenik, **dirudun pertsonak, (30 urtetik aurrera)**, berrikuntza eta produktuak eksklusiboak bilatzen dituztenak. Talde honek **Ecotupper**-rako inbertsio handiagoa egiteko prest egon daiteke, funtzionaltasuna eta diseinu premium bat konbinatuz. Kalitatezko amaierak, aukerak pertsonalizatzeko eta teknologia berritzaileak erosotasuna eta estiloa ekarrita erakarriko dituzte.